*b) La ocupación máxima de la ampliación no superará un incremento de 100 m<sup>2</sup> t.e., computándose en ella superficies abiertas y cerradas.*

*c) El cuerpo ampliado respetará un retiro mínimo de 5 m. al límite de parcela.*

*Visto lo que antecede, se entiende que las obras indicadas no son contrarias a las NN.SS de Asteasu; ya que se respetan las constantes geométricas del edificio preexistente, y las modificaciones planteadas no afectan a elementos de valor arquitectónico, histórico o etnográfico del edificio.*

*No obstante, en caso de aceptación del planteamiento expuesto por el solicitante, sería conveniente pedir el informe preceptivo al Departamento de Agricultura y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa; ya que es este el*

*organismo que coordina las actuaciones en materia de autorizaciones y licencias en suelo no urbanizable.*

---

2016ko irailaren 21ean aurkeztutako idatziaren bidez (sarrera zenbakia: 480) [xxxxxxxxxxxxx](#) jaunak Izurtzu erretegiko portxea eta teilatua luzatzeko obra baimena eskatu zuen.

Obren egikaritze materialaren aurrekontua 27.505,45€-koa da.

Udaleko Arkitekto aholkulariak 2017/01/10eko txostena eman zuen. Honela dio:

---

Se solicita licencia para la ejecución de dos porches y la reforma de la cubierta en Izurtzu Erretegia, uno en la fachada sur que amplía uno ya existente y otro en la fachada oeste, que amplía el alero del edificio.

El asador Izurtzu se ubica en suelo clasificado en las Normas Subsidiarias como no urbanizable, con una zonificación general “sin vocación de uso definido, mosaico forestal y agroganadero”.

El edificio sobre el que pretende actuarse se encuentra consolidado en el planeamiento vigente, admitiéndose, en asimilación a los denominados en las Normas Subsidiarias “caseríos”, actuaciones de ampliación como la solicitada, según lo dispuesto en el artículo 113 de las ordenanzas de las Normas Subsidiarias.

#### **Artículo 113.- Obras de rehabilitación y mejora de los caseríos existentes**

Se autorizan obras de rehabilitación y mejora de los caseríos existentes, esto es, obras de consolidación, redistribución, mejora de servicios, modificación de usos obsoletos o poco compatibles con la actividad residencial, etc..., siempre que se respeten las constantes geométricas del edificio preexistente (ocupación, perfil, pendientes de cubierta, etc...) y que las posibles modificaciones no afecten a elementos de valor arquitectónico, histórico o etnográfico que pueda poseer el edificio existente. Tales actuaciones respetarán las siguientes normas:

...

**La Corporación Municipal podrá autorizar, así mismo, en determinados casos pequeñas ampliaciones adosadas de los caseríos existentes siempre que queden debidamente justificadas.** Tales actuaciones respetarán las siguientes normas:

- a) El perfil, las alineaciones, así como el tratamiento arquitectónico del nuevo cuerpo a edificar, se adecuarán a las características geométricas y compositivas del edificio existente, cuyo perfil no podrá ser alterado sustancialmente por la ampliación, adaptándose en todo caso al tipo de construcción y a los materiales tradicionales en el medio rural (piedra, revocos pintados, teja roja, carpinterías sencillas, etc...).

- b) La ocupación máxima de la ampliación no superará un incremento de 100 m<sup>2</sup> t.e., computándose en ella superficies abiertas y cerradas.
- c) El cuerpo ampliado respetará un retiro mínimo de 5 m. al límite de parcela.

...

Respecto a la previsión señalada en el artículo 103 de las ordenanzas, referente al Decreto Foral 82/1998, de 24 de Noviembre, de Coordinación de Actuaciones en materia de Autorizaciones y Licencias en Suelo No Urbanizable, indicar que tratándose de una modificación puntual de un edificio existente y no de una construcción de un edificio, no es preceptiva la solicitud del informe señalado en el artículo 1 de dicho Decreto Foral, el cual especifica:

Los Ayuntamientos, antes de otorgar las oportunas **licencias de edificación de viviendas y construcciones en suelo no urbanizable**, deberán solicitar informe del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente de la Diputación Foral en orden a que por el mismo se valore su vinculación a una explotación agropecuaria y, en concreto, la idoneidad de la edificación o construcción propuesta en relación con la naturaleza, extensión y utilización de la finca y los planes o normas de la Administración Agraria.

Por lo tanto, desde el punto de vista de la adecuación urbanística, no existe inconveniente para la autorización de las obras solicitadas, al tratarse de una ampliación de menos de 100 m<sup>2</sup>, separada más de 5 metros del límite de la parcela e integrada dentro de la volumetría original del edificio.

En lo referente al contenido técnico del proyecto, informar que el mismo justifica adecuadamente las determinaciones del CTE, incluyéndose en el proyecto además de la memoria un presupuesto, pliego de condiciones, plan de control de calidad, plan de gestión de residuos y planos de proyecto.

Dicho lo anterior, ha de informarse que no se incluye en el proyecto un estudio básico de seguridad y salud y que la documentación gráfica aportada es insuficiente, ya que no se han incluido los siguientes planos:

- Fachada oeste, con indicación de cotas.
- Plano de planta con indicación de apoyos de porche.
- Planos de cimentación de apoyos.
- Estructura de apoyos.

Visto lo anteriormente expuesto se informa desfavorablemente la licencia solicitada en tanto no se corrijan los aspectos técnicos señalados.

-----

Dagokion errekerimendua egin eta gero, 2017/01/27an eskatutako dokumentazioa aurkeztu da (sarrera zenbakia: 45).

Udaleko Arkitekto aholkulariak 2017/02/01eko txostena eman du. Honela dio:

-----

Ha sido presentada documentación complementaria referente al proyecto para la ejecución de dos porches y la reforma de la cubierta en Izurtxu Erretegia, uno en la fachada sur que amplía uno ya existente y otro en la fachada oeste, que amplía el alero del edificio.

Tal como se mencionaba en el informe del día 10 de enero de 2017, el asador Izurtzu se ubica en suelo clasificado en las Normas Subsidiarias como no urbanizable, con una zonificación general "sin vocación de uso definido, mosaico forestal y agroganadero".

El edificio sobre el que pretende actuarse se encuentra consolidado en el planeamiento vigente, admitiéndose, en asimilación a los denominados en las Normas Subsidiarias "caseríos", actuaciones de ampliación como la solicitada, según lo dispuesto en el artículo 113 de las ordenanzas de las Normas Subsidiarias.

**Artículo 113.- Obras de rehabilitación y mejora de los caseríos existentes**

Se autorizan obras de rehabilitación y mejora de los caseríos existentes, esto es, obras de consolidación, redistribución, mejora de servicios, modificación de usos obsoletos o poco compatibles con la actividad residencial, etc..., siempre que se respeten las constantes geométricas del edificio preexistente (ocupación, perfil, pendientes de cubierta, etc...) y que las posibles modificaciones no afecten a elementos de valor arquitectónico, histórico o etnográfico que pueda poseer el edificio existente. Tales actuaciones respetarán las siguientes normas:

...

**La Corporación Municipal podrá autorizar, así mismo, en determinados casos pequeñas ampliaciones adosadas de los caseríos existentes siempre que queden debidamente justificadas.** Tales actuaciones respetarán las siguientes normas:

- d) El perfil, las alineaciones, así como el tratamiento arquitectónico del nuevo cuerpo a edificar, se adecuarán a las características geométricas y compositivas del edificio existente, cuyo perfil no podrá ser alterado sustancialmente por la ampliación, adaptándose en todo caso al tipo de construcción y a los materiales tradicionales en el medio rural (piedra, revocos pintados, teja roja, carpinterías sencillas, etc...).
- e) La ocupación máxima de la ampliación no superará un incremento de 100 m<sup>2</sup> t.e., computándose en ella superficies abiertas y cerradas.
- f) El cuerpo ampliado respetará un retiro mínimo de 5 m. al límite de parcela.

...

Respecto a la previsión señalada en el artículo 103 de las ordenanzas, referente al Decreto Foral 82/1998, de 24 de Noviembre, de Coordinación de Actuaciones en materia de Autorizaciones y Licencias en Suelo No Urbanizable, indicar que tratándose de una modificación puntual de un edificio existente y no de una construcción de un edificio, no es preceptiva la solicitud del informe señalado en el artículo 1 de dicho Decreto Foral, el cual especifica:

Los Ayuntamientos, antes de otorgar las oportunas **licencias de edificación de viviendas y construcciones en suelo no urbanizable**, deberán solicitar informe del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente de la Diputación Foral en orden a que por el mismo se valore su vinculación a una explotación agropecuaria y, en concreto, la idoneidad de la edificación o construcción propuesta en relación con la naturaleza, extensión y utilización de la finca y los planes o normas de la Administración Agraria.

Por lo tanto, desde el punto de vista de la adecuación urbanística, no existe inconveniente para la autorización de las obras solicitadas, al tratarse de una ampliación de menos de 100 m<sup>2</sup>, separada más de 5 metros del límite de la parcela e integrada dentro de la volumetría original del edificio.

En lo referente al contenido técnico del proyecto, informar que el mismo justifica adecuadamente las determinaciones del CTE, incluyéndose en el proyecto además de la memoria un presupuesto, pliego de condiciones, plan de control de calidad, plan de gestión de residuos y planos de proyecto.

En la documentación complementaria aportada, se ha incluido plano de la fachada oeste, con indicación de cotas, plano de planta con indicación de apoyos de porche y estructura de apoyos, señalándose que no existe cimentación al actuarse sobre un forjado.

Visto lo anteriormente expuesto se informa favorablemente la licencia solicitada, siempre que la corporación estime justificada la actuación, con las siguientes condiciones:

1. El anexo presentado deberá estar firmado por el Sr. Camarero en todos sus documentos.
2. Antes del inicio de las obras se firmará el acta de replanteo y la tirada de cuerdas de las zonas de actuación.
3. La licencia tiene una vigencia 6 meses, con un plazo para el inicio de las obras de 2 meses, un plazo de paralización máxima de 2 meses y un plazo de duración de las obras de 2 meses.
4. Deberá presentarse un aval por valor del 120% del coste de la gestión de residuos de construcción y demolición, según señala el artículo 5 del Decreto 112/2012 de producción y gestión de residuos de construcción y demolición.

---

Hirigintza eta Obretako Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 9 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Txapartegi, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria, Echeverria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

## ERABAKI DU

LEHENA.- Obra lizentzia ematea [xxxxxxxxxxxxx](#) jaunari Izurtzu erretegiko portxea eta teilatua luzatzeko, beti ere aurkeztutako agiriak eta I. Eranskinean jasotako baldintzak betetzekotan.

BIGARRENA.- Udal ordenantza fiskalak xedatutakoarekin bat, honako zergaren kitapena onestea:

Eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zerga:

Aurrekontua: 27.505,45€

Zerga mota: % 5a.

Ordaintzera: 1.375,27€

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea interesdunei.

## I. ERANSKINA

### **BALDINTZA PARTIKULARRAK**

- Lanak hasi aurretik zuinketa-akta sinatuko da, eta sokak botako dira eskuhartze eremuetan.
- Baimenak 6 hilabeteko indarraldia izango du; 2 hilabeteko epean hasiko dira; 2 hilabetez gelditu ahal izango dira; eta 2 hilabetez iraungo dituzte lanak.
- Eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 5. Artikuluarekin bat, hondakinen eta ekoizpen kudeaketaren kostearen %120ko bermean aurkeztu beharko da.

### **BALDINTZA OROKORRAK / CONDICIONES GENERALES**

Obrako hondakinak gai horri buruz	
-----------------------------------	--

Los residuos de la obra se gestionaran
----------------------------------------

indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatuko dira, eta obra-eremua garbi mantenduko da.	<b>1</b>	conforme a la normativa vigente en la materia y se mantendrá limpia la zona de obra.
Obrak egikaritzeko espazio publikoari eragiten dioten edukiontziak, aldamiok, garabiak edo beste bitarteko osagarri batzuk jarri behar badira, dagokion udalbaimena eskatu beharko da. Dena den, behar bezala seinalatua geratu behar du, balizko arriskuei aurrea hartzeko. Seinaleak segurtasun eta apaintasun aldetik egoera onean mantentzeko ardura eskatzailearena da.	<b>2</b>	Si para la ejecución de la obra es preciso colocar contenedores, grúas o cualquier otro medio auxiliar que afecte al espacio público, deberá obtenerse la oportuna autorización municipal. En todo caso, deberán quedar señalizados convenientemente en precaución de posibles accidentes. El solicitante quedará obligado a conservar los elementos de señalización en el debido estado de seguridad y ornato.
Obra-hondakinak kentzerakoan, ahalegina egingo da eragozpenik ez sortzeko, hautsik ez harrotzeko eta harripilarik ez sortzeko, eta horretarako beharrezko neurriak hartuko ditu kontratistak.	<b>3</b>	En la ejecución de los trabajos de retirada del escombros se cuidará de no producir molestias en el entorno, así como polvo, cascotes, etc., adoptando el contratista las medidas necesarias para ello.
Toki altuetatik hondakinak ateratzeko beharrezkoa da edukiontzirainoko hodi bat jartzea, eta hura toldo batekin estaltzea, hondakinak eta hautsa kanpora, bide publikora, atera ez dadin.	<b>4</b>	En caso de desescombros desde altura, será obligatorio colocar conducto de evacuación o bajante de escombros que se cubrirá en su encuentro con el container con un toldo suficiente que evite la salida al exterior de escombros o polvo procedente del mismo.
Ezin da obra-lizentzian jasotzen ez den lanik egin. Onartutako proiektua aldatu nahi izanez gero, aldeaz aurretik udalaren baimena eskatu behar da. Horrela egin ezean, hirigintzako arau-haustetzat hartuko da.	<b>5</b>	La obra no sobrepasará los conceptos recogidos en la licencia de obras. En caso de voluntad de alteración del proyecto aprobado será preceptiva la solicitud de autorización municipal previa. De no hacerlo así, se considerará infracción urbanística.
Obrak egiterakoan eraikuntzan hartu ohi diren neurriak hartuko dira. Halaber, eraikuntzako Segurtasun eta Osasun Araudian aurreikusitako neurriak hartuko dira.	<b>6</b>	En la realización de las obras se adoptarán las precauciones que aconseja la buena práctica de la construcción, así como las previstas en el Reglamento de Seguridad y Salud en el Trabajo de la Industria de la Construcción.
Titularrak erantzukizun zibileko aseguruia izan behar du, istripuak direnerako; edo obrak egiteko kontratatzen duen pertsonari hori izan dezan eskatuko dio.	<b>7</b>	El titular deberá disponer de un Seguro de Responsabilidad Civil para casos de accidente o bien lo exigirá a aquella persona contratada para la ejecución de las obras.
Lizentzia jabetza-eskubidear salbu eta hirugarrenen kalterik gabe emanda ulertuko da.	<b>8</b>	La licencia se entiende otorgada a salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.



## **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **7. Asteasuko Udala eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako erakunde arteko espaziora atxikitze erabakia.**

## **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **8. Betani etxebizitza zainduan plaza hartzeko eskaera.**

Ikusirik:

BAT: [xxxxxxxxxxxxx](#) jaunak, 2016ko abenduaren 13an, Asteasuko Udalak duen etxe-bizitza babestuan, sartzeko plaza eskaera aurkeztu duela,.

BI: Gizarte langileak aurkezturiko informazioa

HIRU: 2014ko azaroaren 25ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Etxe-bizitza babestuaren Udal araudiko baldintza guztiak betetzen dituela.

LAU: Udaleko Gizarte Langileak 2016/12/21ean eginiko txostena.

Kontuan hartuta Agureentzako Asteasuko «Julian Lizardi» tutoretzapeko baserriaren funtzionamendu-araudia.

Gizarte zerbitzuak enplegua eta hirugarren mundua Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Idazkariak hitza hartu du: Aipatu den funtzionamendu-araudiaren arabera, eta Gizarte Zerbitzuetako txostenarekin bat, erabakia Alkatetzari dagokio. Alkate andreak erantzun du nahiago izan duela gaia Udalbatzara ekartzea.

Ayerza jaunak hitza hartu du: zerbitzua arautzen duen erregelamendua zaharkituta ikusten dugu, izan ere, besteren artean, 60 urtetik gorako erabiltzaileentzat aurreikusten da eta; gaur egun, jendea aipatu adinetik gora lan egiteko baldintzak betetzen ditugu, eta kasu honetan, ikusten dugu pertsona honek lan egiteko baldintzak betetzen dituela, eta hau kontuan hartuta, ikusten dugu honek herri-mailan zamak sortu ditzazkela. Hori dela eta, aurrekari bezala, ikusirik eskaera asko jaso daitezkeela, erregelamendua aldatzeko planteamendua egiten hastea eskatzen dute.

Alkate andreak hitza hartu du: lan hori Gizarte Zerbitzuetatik bultzatu beharko da.

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: Guk batzordean izan genuen honen berri, eta baldintza guztiak betetzen zirela esan ziguten, eta horren aurrean ez dago ezer.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 9 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Txapartegi, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria, Echeverria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

## ERABAKI DU

Lehena. Onartzea [xxxxxxxxxxxxx](#) jauna Julian Lizardi etxe-bizitza babestuan sartzea.

Bigarrena. [xxxxxxxxxxxxx](#) jaunak hilabete bakoitzeko 294,96€ ordainduko ditu.

## **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **9. Adierazpenak:**

#### **- Galdeketa. Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?**

Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoren enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkartza zabal bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitzeko eskubidea aldarrikatuzetik egikaritzera pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitzeko eskubidea, emaitzaren gaineratik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarrak, eskualdeko biztanlearen iritzia babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkartza duen heinean, begi onez ikusten du Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarren garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitze ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europar martxan dabilen trena Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 9 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Txapartegi, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria, Echeverria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

**- Emakumeen Nazioarteko eguna: EUDEL.**

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEKO ADIERAZPEN EREDUA

Martxoak 8: Ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio

“Emakume gutxi daude ordezkaturik udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoei aurre egin behar izaten diete”. Hori jaso zuen Inger Lingek<sup>1</sup> Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkartza politikoari buruzkoa izan zen.

Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonak tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe

---

<sup>1</sup> Inger Linge Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuko genero berdintasunerako bozeramailea da.

baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkartza eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, “euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte”. Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkartzen dute. 2015ean, alderdi politikoek %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.

Euskadin gehiengoak duten sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariarik, eta erabakitze organo garrantzitsuenetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politiketan.

Egoera horren JAKITUN, ASTEASU (e)ko Udalak Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonen Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:

1. Kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkartza orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea,

betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikotik izan ezik).

2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuaren edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.

3. Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.

4. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren arabera neurri zuzentzaileak ezartzeko.

5. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola, emakumeen etxeak, jabeak eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jabeak eskolako programan parte har dezaten ahalbidetzea.

6. Udalerriko emakumeen ahalbidetzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengoen taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.

7. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.

8. Udaletako berdintasun sailetan eta gainerako udal sailetan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 9 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Txapartegi, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria, Echeverria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

**- Emakumeen Nazioarteko eguna: EHBILDU.**

2017 MARTXOAK 8  
ADIERAZPEN PROPOSAMENA

GOI BURUA

ASTEASUko osoko bilkuran aztertu eta eztabaidatzeko adierazpen proposamena

ZIOA

Diskurtso ofizialek krisia merkatuen errentagarritasun galeragatik sortu zela esan zigutenean, emakumeon eskubideak denboraz luzez zeudela krisian ekarri genuen gogora. Orain berriz, ustez krisitik irteten ari garenean, emakumeon eskubideak inoiz baino krisi latzagoan kokatuak daudela esan behar dugu.

Esparru publikoari dagokionean, bertan gauzatu diren murrizketek bereziki eragin dute emakume eta gizonen arteko desoreka areagotzea: 0-3 bitarteko heziketa zentroen sarea handitzen ez joateak, haur-eskolak murrizteak, helduentzako eguneko zentroetan zein geriatikoetan dauden itxaron-zerrendak, esparru publiko horretan burutu beharreko zaintza eta artapen lana esparru pribatura ekarri du, emakumeek betetzen duten ordaindu eta aitortu gabeko esparru pribatura.

Honi guztiari erantsi behar zaio EPEetan dauden muga zorrotzak, ordezkapenak ez direla betetzen ari, hainbat lanpostu amortizatzen ari direla, 35 lanorduko asteak ez direla berreskuratzen ari, emakume askok lan egiten duen sektorean, administrazio publikoan, lanaldiko baldintzen berdintasuna urratu eta emakume langileen bizkar erortzen direlarik bereziki murrizketa hauek guztiak.

Eta herritar gisa dagozkigun eskubideen jasotzaile ez garenez hainbatetan, aldi aldi eskatu beharreko laguntza publikoen jasotzaile bilakatzen gaituzte, uneko borondate politikoak ezarritako aurrekontu eta baldintzen menpeko bilakatuz emakumeak.

Osasun sistema publikoan izaten ari diren murrizketek ere (ohe gutxiago, langileen murrizketak, osasunari begirako prebentzio zerbitzuen murrizketa, kribatuetan edota umetoki zein bularreko minbiziaren prebentziorako frogei eusteko adin mugaren igotzeak besteren artean), emakumeen osasunean eragin dute atzerako eraginarekin.

Berdintasunaz eta indarkeria matxistaz arduratzen diren departamentuei begiratuz gero berriz, erakunde nagusietako aurrekontu orokorrek alderatuz gero, berdintasun eta indarkeriaren artapenerako partidak izoztu edota behera egin dutela ikusi dugu.

Esparru pribatuan ere, aldi baterako lanaldiak, lansari eskasak, egun gutxi batzuetarako kontratu sistema prekarioak, bereziki emakumeei zuzenduak izan dira.

Eta honek guztiak eragin du, emakumeak sistema produktibo prekarizatuan eta erreproduktibo hainkargatuan aritu behar izatea.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunak aurrera egiten ez badu, atzera egiten du, maldan gorako lana baita berdintasunari egokitzen zaiona, eta neurri horretan, aurrera egiten ez duen oroko egiten baitu atzera.

Garaia da erakundeetan berdintasunaren aldeko hautua egiten dugula esatearekin batera, konpromiso zehatzak hartuz garatzea.

Horregatik, 2017ko martxoak 8 honetan, ondorengo adierazpen proposamena egiten dugu, osoko udal batzak onartu dezan.

#### EBAZPEN PROPOSAMENA

1.- ..ASTEASU.....ko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du legegintzaldian murrizketarik ez burutzeko herritarrei zuzendutako zerbitzu publikoetan, bereziki emakumeengan eragingon duten zerbitzuei dagokionean.

2.-.ASTEASU.....ko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du berdintasun partidak igotzeko 2017tik 2019ko aurrekontuei dagokionean.

3.-ASTEASU.....ko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du murrizketek emakumeengan eragin dituzten ondorio kaltegarriak ikusarazteko jendarteratze lanari eutsiko diola.

8 DE MARZO DE 2017

#### DECLARACION

#### ENCABEZADO

Propuesta de declaración para su estudio y debate en el pleno del Ayuntamiento de ASTEASU

#### MOTIVO

Cuando los discursos oficiales nos dijeron que la crisis surgió de la pérdida de rentabilidad de los mercados, recordamos que los derechos de las mujeres llevaban mucho tiempo en crisis. Ahora, en cambio, cuando al parecer estamos saliendo de la crisis, tenemos que indicar que los derechos de las mujeres están inmersos en una crisis más dura que nunca..

En lo que al ámbito público respecta, los recortes sufridos en ese campo han incidido especialmente en el aumento del desequilibrio entre mujeres y hombres: el hecho de que la red de centros de enseñanza de 0-3 años no haya ido aumentando, la reducción de escuelas infantiles, las listas de espera existentes tanto en centros de día como en geriátricos, han llevado al ámbito privado la tarea de cuidado y

mantenimiento de la vida, que se debería llevar a cabo en el espacio público, esto es, la han desplazado al ámbito privado sin remuneración y reconocimiento que ocupan las mujeres.

Los recortes que se están ejecutando en la administración pública, un sector ocupado en gran parte por mujeres y donde las condiciones de equidad laboral deberían de asegurarse, están repercutiendo de forma negativa en ellas, al no cubrirse sustituciones, amortizarse puestos de trabajo, o no recuperar las jornadas semanales de 35 horas.

Al sernos negados los derechos que como parte de la ciudadanía nos corresponde, se nos sitúa como receptoras de ayudas públicas puntuales, que percibiremos en función del presupuesto destinado y los criterios definidos por la voluntad política del momento.

Los recortes que están ocurriendo en el sistema público de salud (menos camas, recortes a las y los trabajadores, reducción de los servicios de prevención orientados a la salud, aumento del límite de edad en los cribados o en el mantenimiento para las pruebas de prevención de cáncer tanto de útero como de mama) han influido en la salud de las mujeres con carácter negativo.

Si, por otra parte, nos fijamos en los departamentos que se ocupan de la igualdad y la violencia machista, si lo comparamos con el presupuesto general de las principales instituciones, observamos que las partidas para el tratamiento de la igualdad y la violencia se han congelado o han disminuido proporcionalmente.

En el ámbito privado, a su vez, los periodos de trabajo temporales, las retribuciones escasas y los sistemas de contrato precarios para unos pocos días, han ido orientados principalmente hacia las mujeres.

Y todo ello ha desencadenado que las mujeres hayan tenido que desenvolverse en un sistema productivo precarizado y sobrecargado.

Si la igualdad entre mujeres y hombres no avanza, retrocede, porque el plano sobre el que se desarrolla el trabajo por la igualdad es una pendiente inclinada, y en esa tesitura, todo lo que no avanza sobre esa pendiente, retrocede.

Es hora de que, además de afirmar que en las instituciones optamos a favor de la igualdad, desarrollemos esa opción con compromisos concretos.

Por eso, en este 8 de marzo de 2017, realizamos la siguiente propuesta de declaración para su aprobación por parte del pleno municipal correspondiente.

**PROPUESTA DE RESOLUCIÓN**



1.- El Ayuntamiento de Asteasu se compromete a no realizar recortes en los servicios públicos dirigidos a la ciudadanía, especialmente en lo que respecta a servicios que incidirán en las mujeres.

2.- El Ayuntamiento de Asteasu se compromete a incrementar las partidas de igualdad en los presupuestos de 2017 a 2019.

3.- El Ayuntamiento de Asteasu se compromete a mantener su tarea de visibilizar socialmente las consecuencias perjudiciales que han generado los recortes en las mujeres.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Txapartegi, Mugika, Usandizaga, Elicegui)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 2 (Uribe-Etxebarria, Echeverria).

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: abstenitzea erabaki dugu aurreko mozioa adostuta zegoelako guztion artean; hortaz, ez dauka zentzurik orain beste ezberdin bat onartzea.

Alkate andreak hitza hartu du: mozio hau jaso da Udalean, eta ekartzea erabaki dugu, izan ere, testuan gauza gehiago jasotzen dira, eta gogorra da horretan jasotakoaren kontra egotea.

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

### - **“Guernica” Gernikara**

#### “GUERNICA” GERNIKARA MOZIOA

1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak “Guernica” margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Euskal Herritarren gune kuttun eta esanguratsuenetakoa zen Gernikak Condor Legio naziak Francoren agindupean jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du. Beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako karraxi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau, Gernika zein Euskal Herritarren beste eskaera eta garraxi bat

zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: “Guernica” margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zanpalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin ba dago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzerantz eramantzen zuena. Horren jakitun, Gernika eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du, aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoan egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baina gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arazo teknikoak aipatuz, “Guernica” bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantentzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute Euskal instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrilgo Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude “Guernica” Euskal Herrira ez ekartzeko arazo nagusien nagusien artean.

Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean “Guernica”-k Gernikan egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu ....ASTEASUko Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

1.- Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.

2.- Udal honek, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, Picassoren Guernica margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita ere, margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.

3.- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaltzeko nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

4.- Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 9 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Txapartegi, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria, Echeverria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

#### **10. Erregu eta galderak.**

Ez dira aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du gaueko 20.47 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2017ko martxoaren 6an.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea